

# Ikaslagunak



**NORA BARROSO**  
EHU-KO IRAKASLEA  
@axala\_n

Ikasketa prozesua konplexua da. Konplexua, eragile ugari, zentzumena eta sentimenduek hartzen dutelako parte. Ez da lineala, emaitzak ez baitira bizigaien batura hutsa. Anitza ere bada, guztiok ikasteko ahalmena eduki arren gure ezaugarriek anitza egiten dutelako sorkuntza zein emaitza. Eta akrobata. Akrobata ere bai, pentsamenduak saltoka ibiltzen direlako eremu batetik bestera.

Onartu egiten dugu ikasketa prozesua kutxa batean sartzerik ez dagoela, hamai-ka estimulak eragin arren haien eragina ez dela zertan berdina izan, bakoitzak gauzak ulertzeko modu desberdinak ditugula, arreta denbora luzez mantentzea ezinezkoa dela, pentsamenduek etenak eta saltoak dituztela... Orduan, formalizat hartzen ditugun ikasteko eremu gehienetan, zergatik ez ditugu ezaugarri horiek kontuan hartzen? Zergatik fikziozko mugak ezarri? Uste dut jarrera horiek ikasteko prozesuaren kontra egiten dutela eta sorkuntzarako zein bizitzarako kontrol sistema direla.

Gehienetan hezkuntza formalean ikasketak nagusiki gidatuak dira. Teoria baten inguruan narrazio hertsia bat sortu ohi da, eta irakasleok horren bueltan dihardugu gidoitik ezer gutxi edo ezer atera gabe, hartzaileari garapenerako aukerak mu-

rriztuz. Erakundeentzat zein irakasleentzat espazio kontrolatuak sortzen dira horrela eta, bi entitate horien nagusitasuna hauspotzen duten botere harremanak eraikitzen dira. Irakasleok jakituriaren itsasargia? Bai zera! Eta, jaberik ba al du irakaskuntzak? Ezezkoan nago ni. Estetiko zein norabide bakarrekoa den hezkuntza sistemak ezagutzen duguna beste modu batean errepikatzen kondenatzen gaitu eta, hori nahi ez badugu behintzat, hezkuntza sistemaren oinarriak aldatu beharko genituzkeela uste dut.

Irakasleen eta ikasleen arteko mugak lausoak izango balira, adibidez, etengabe trukatuak lirakeke rola eta ikasketa komunitarioetara bideratuko ginatke. Desikastea arbuatuko ez bagenu, ikasketa prozesu holistikoagoetan aurkituko genuke arnasa, josi eta askatzen diren jakintza birmoldatuak eratzeari beldurrik izan gabe. Enpatian oinarritutakoak eta irekiak diren baliabideak sortuko bagenu, ikaskideak izango ginatke...

Hezkuntza motek bizitzeko ereduak transmititzen dituzte eta alderantziz. Aldaketak nahi baditugu geruza anitzeko dimentsio konplexuetan sentitu/pentsatu/ekin beharko dugu. Ez dakit nola egiten den baina, badakit ikaslagunak nahi ditudala. ●

# Magrisen profezia



**EDU ZELAIETA ANTA**  
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Claudio Magrisen *Mugak* saiakera laburra berriz irakurtzen ari nintzela topo egin dut haren profezia batekin: "Gure etorkizunearan baten itzala ageri da: hainbat eta hainbat gizon-emakumeek, oinazeak eta goseak akuilatuta, beren sustraiak, beren mugak bertan utzi eta beste herrietara alde egingo dute, gorrotoa eta beldurra sortaraziz, eta ondorioz hesi gehiago altzaraziko dira (...) halakoa izango da, etorkizun hurbilean, Europaren existentzia edo haren duintasuna behintzat".

1995ean argitaratu ziren Magrisen arestiko hitzok, Koldo Biguriren itzulpena-

ri esker. Jaioterriko *frontiera*-tik ari zaigu testuan Triesteko idazlea, eta, bidenabar, Europako fronte(r)ez. Gutako inor gutxi i(r)garriko zuen Berlingo Harresia *erorazi* zen lekuan beste zenbait eraikiko zirela hurrengo hamarkadetan. Datuak, baina, ez gaitu toki onean uzten: hamaika murren omen zeuden zutik Berlingoaren ondortik; 70 baino gehiago omen daude egun. Hauteskundeek ere erretratzen gaituzte han eta hemen: murren promesek boto-zaku gizenak erakartzen dituzte.

Nietzscheren galdera batekin bukatu zuen saiakera Magrisek: "Non senti naitetke etxean?". ●